

KOLON Lezon jaio zen



Asko dira Gaurko egunean Kristobal Kolon nongoa zen diskutitzen ari direnak. Honi buruzko hainbat eta hainbat hipotesi aurkeztu duten historiagile eta jakintsuak beren artean borrokatu izan dira Amerika deskubritu zuen gizon ospetsu honen nazionalitatea zehazteko garaian.

Dela gutxi, Jose Javier Flores historiagile irundarrak, berak egindako deklarazio batzuekin, orain arteko hipotesi guztiak lur jota uzten ditu. "EL PAIS" egunkarian "Cristobal Colón nació en Lezo" artikulua ikaragarrian, historiagile famatu honek, Kristobal Kolon Lezon jaio zela eta, are gehiago, ez zirela errege katolikoak izan Amerika nahi gabe deskubritu zuen expedizio hau finantziatu zutenak, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa baizik. (Dakizuen bezala 1448. urtean fundatua). Honako hauek ditugu Jose Javier Flores-ek "EL PAIS"-en "Colón nació en Lezo" artikuluan egindako deklarazioak:

"Ez dago batere dudarik, Kristobal Kolon Lezon jaio zen. Ez zen portugesa, ez italiarra ezta espainola ere. Kolon euskalduna zen. Kiski guztia ez dakit nongo biblioteca eta artxiboetan Kolon-en berriak bilatzen ibili da: Lisboan, Madriden, Marsellan, Genovan... Inorreri ez zaio burutik pasa Lezoko artxiboan begiratzea. Bai jaunok, Lezoko artxiboan Kristobal Kolonen jaiotzaren partida aurkitu dut. Honela dio:


"Kristobal Kolon Salaberria, Mañuel eta Josefa Iñasiren semea. 1456. urteko otsailak 30-ean Lezon jaioa, "Kolon-enea" baserrian."

Norbaitek dudan jartzen badu, jaiotzagiri hau Lezon dago. Esan bezala, Kristobal lehen "Kolon-enea" zen Olatzar baserrian jaio zen. Nahiz eta bere gaztaroa nahiko iluna izan, badakigu txikitatik ibili izan ohi zala Kristobal bidaietan, feritik ferira bere aitarekin. (Honek, bere arbasoek bezala, azak saltzen zituen. Bere abizena hemendik heldu da: aza erderaz "col" da, eta nola bere arbasoek aza haundiak saltzen zituzten, "colón" deitzen zioten.)

Badakigu gainera, Kristobal Kolon Gipuzkoako Aurrezki Kutxa-ko "Club del Osito"-koa zela. Eta bertan zuen kartilan zenbakia 15.364.930/9 zela. "1.486. urtean, Lezoko biblioteka azken aldiz irekia egon zen urtean, "Los viajes de Marco Polo" liburua irakurtzeko posibilitatea eduki zuen. Hemen sortu zen Kristobalengan mundu eta abentura berriak ezagutzeko grina".

"1.490. urtean, Kristobalek, lagun batzuekin batera, "Santa Maria" izenez ezagutu zen Asturias-en barkoa konpondu zuen. "La Pinta" eta "La niña" itsasontziak berriz, Ascorreta ontzigindegietan egin ziren. Guzti hau nolabait sufragatzeko, Kolonek Garibay kalean dagoen Aurrezki Kutxa Probintzialari 1.000 dolarreko prestamu bat eskatu zion.

Eta honela 1492. urtean Ameriketaraino iritxiko zen expeditioa martxan jarri zen. Beste guztia badakizue. Baina nik gauz bat bakarrik dakit, eta garbi utzi du: Kristobal Kolon Lezon jaio zen."



Xtobal kolon eta talaberriaco, Manhuel eta Josepha Ygnashiren semea. Milla ta larehun ta berageita amasei urteko otsaiyac ogeyta amarian Lezon jayoa, Colonehea vaseriyan. Goiseco sortziyeta " bataiyatu nuen Juanes coloneco eta Ysabela Manziaco sirela lecuco. Sinescarri gerta dadin sinatsen dut.

Juanes Lezoandiac

Hau da Kristobal Kolon-en jaiotzagiri orijinala.

MIKEL SUSPERREGI